



“INFERNUKO ERROTA” SL-NA 13

Luzera 10,300km Desnibela: 200mt Zailtasuna: Baxua Denbora: 3 ordu.

Joan-etorriko ibilbidea, Etxalarko eta Baztango mugan kokaturiko errota bitxi bat, errekaen gainean eraikia, bisitatuz. Ibilbidea:

- 0,000 km: **ORIZKI GAINA** (390m), Etxalartik Zugarramurdirako bideko 3. Km-an, eskuinean aparkaleku moduko zabalgunea, babesik gabea. Ezkerretik jaitsi, erreka alderantz eta Baztanen Borda baserrira doan pista zabal eta erosotik.
- 0,925 km: Bidea bitan banatzen da, zabortegirako bidean. Zuzen segi, lurrezko pista nagusitik.
- 1,050 km: Altxata erreka (315m) zeharkatu eta maldan gora; 50m aurrerago, bidea bitan banatzen denean, pista bera segi, ezkerretik.
- 1,850 km: Bihurgune itxia ezkerretara eta jaitciera. Infernuko erreka ikuspegia; 300m aurrerago, iturria.
- 3,510 km: **BAZTANEN BORDA BASERRIA** (edo Baztanen Borda, 380m). Pista bukatu eta baserriaren ezkerretik igoko gara, bide zabaletik.
- 3,725 km: Bidea bitan banatzen da. Eskuineko bidetik segi, bazterrean pago zaharrak dituen.
- 4,715 km: Bidea bitan banatzen da. Eskuinetik segi, maldan behera. Errotara iritsi baino lehen, ezkerretik segi.
- 5,070 km: Infernuko erreka zokoa (350m) eta Etxebertzeko Borda baserri-jatetxetik datorren bidea. Eskuinetara jo.
- 5,150 km: **INFERNUKO ERROTA**, presa txiki bat eta harrizko eskailera batzuk jaitsi eta gero. Ibilbidea hemen bukatu eta berriz Orizki gainera itzuliko gara (AUKERA: bada erreka zokotik SL NA-13 segitu eta 2,5 km-ra Etxebertzeko Bordara ailegatzea).
- 10,300 km: **ORIZKI GAINA** (390m), aparkalekua. Ibilbidearen hasiera eta bukaera